

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Europako ultraeskuindarren gazi-gozoak

Europar Batasunean ultraeskuindarrak eta neofaxistak indartsu dabilta. Azken hauteskunde Europakoetan handitzen ikusi dira eskuin muturreko populistak, faxistak eta neonaziak, nor bere berezitasunarekin. Ezkerrean galdezka ari dira zergatik den eta haiek nola gelditu.

BI EURODIPUTATU ULTRAESKUINDAR ingeles daude joan den uztaileko hauteskundeetatik, British National Party (BNP) alderdikoak. Jende zuriak baizik afiliatzea onartzen ez duen BNPk aldarrikatzen du arrazaz jatorri britainiar zurikoak ez diren guztiak kanporatu egin behar direla –lege anti-arrazistak desegin eta herritar beltzarenak “beren borondatez” alde egitea sustatuz– Erresuma Batuakberriro 1948an zeukan arraza garbitasunera iristeko. Hitz horiekin, argi eta garbi.

Eskuin muturraren indartzea *Red Pepper* aldizkari ezkertiar ingelesak aztertu berri du abuztuko zenbakian. Alde batetik, arrazismoaren eta faxismoaren kontrako mugimenduetan ari diren militante erreferentziazkoak jarri ditu eztabaidan ea zergatik porrot egin duen ultra jendeari bidea mozteko ahaleginek. Bestetik, *Red Pepper*ren Tom Walker-ek Europako ultraeskuindarren ikuspegi panoramikoak eskaini du *Europe's far right rises* (Europako eskuin muturra goraka) erreportaje zabalean.

Walker saiatu da esplikatzen Europar Batasunean indartu den eskuin muturreko mugimendua, nola eta zergatik. Ezaugarri eta batez ere itxura oso ezberdinak erakusten dituzten mugimenduak ulertzen laguntzeko.

Uztaileko hauteskundeetan Europa osoan portzentaje handiena Holandan egin zuen, Partij voor de Vrijheid (Askatasunaren Alderdia, PV) markarekin: 25 eurodiputatuetatik lau. Geert Wilders buruzagiaren nortasunean erabat zentratua, alderdi egiturarik gabe, faxisten topikoak hausten ditu PVk, adibidez argudiatuz islamaren kontra dagoela hau emakumeen zantpatzaila delako.

Holandako PV da neonazien klixea gaingitu duten mugimendu populisten adibide nabarmena. Ezkerreko mugimendu antifaxistek nekezago egiten diote aurre, militante holandarrek aitortua.

Danimarkako Dansk Folkeparti (Herri Daniarraren Alderdia, DF) antzeko musikarekin ari da emaitza onak lortzen: uztailean botoen %15 eta 2 europarlamentari. Musulmanen kontrakoa, xenofobia, Danimarkan agintean dagoen eskuinaren politika kutsatzea ere lortu du. Beti ere, komunikabideak trebezia erabiliz. Mahomaren komiki famatu haren eskandaloa primeran etorri zitzaion DFeko buruzagi Pia Kjaersgaard-i aldarrikatzeko “hemen ez dagoela zibilizazioen arteko talkarik, zibilizazio bat besterik ez dagoelako: gurea”.

Baina Mendebaldeko populistok arretaz zaintzen badute neofaxiste-

Argazkia Hungariako Jobbik partiduaren inguruan antolatutako Magyar Garda talde paramilitarren hedabide batekoa da, Hajugarda izeneko gunetik aterea. Bi emakume gazteek Gardako uniformeak daramatzate. Erdiko gizonezkoak kamixetan aldarrikatzen du Hungaria erresumen lurralde, 1920an I. Mundu Gerran inperio austriar-hungariarra hondoratzean galdu zuena, Trianon-go itunarekin. Hain zuzen horrexegatik Erdi eta Eki Europako alderdi ultraeskuindar askorentzako hungariarrak dira etsai nagusietakoak, nazionalismoek eta xenofobiekin elkarren kontra talka eginda. Europako Mendebaldeko eskubi muturrekoek populismoa era sofistikatuagoan lantzen dute eta Erdi eta Ekialdekoek berriz nazien oinordekotza aldarrikatzeko ez dira lotsa.

kin ez nahastea, Eki Europakoek ez daukate halako konplexurik. Hungariako Jobbik alderdia da horren etsenplu.

Jobbik Magyarországért Mozgalom-ek (Hungaria Hobe baten aldeko Mugimendua) askoz beldur handiagoa ematen du. “Hungaria hungariarrentzako” leloarekin ijitoen kontrako garbiketa *razziak* antolatzen ditu. Nabarmenki neonazia da. Magyar Garda milizia uniformatua darabil kalean. Homosexualak, feministak eta ezkertiarak erasotzen ditu. Muturra oso sartuta dauka polizian: Jobbiken sindikatuan afiliatuta daude agenteen %10. Horien ordezkari Judit Szimák esan berri ei du hungariarren eta ijitoen arteko gerra zibila gainean dela. Jobbik botoen %15 bildu zuen uztailean.

Xenofoboen elkar ulertu ezina

Ijitoen kontrako alderdiek emaitza onak lortu dituzte hauteskundeetan Errumanian, Bulgarian eta Eslovakian ere. Berdin Greziako LAOS alderdi antisemita homofoboak. Austrian, berriz, esaten da ahuldu egin direla azken bozketan ultraeskuindarrak, baiän Freiheitliche Partei Österreichs (Askatasunaren Alderdi Austriarra, FPÖ) ez da jaitsi botoen %13tik. Finlandiako Perussuomalaiset-ek (Egiazko Finlandia-



rrak) botoen %10 lortu du, agi denean jubilatuen artean sostengu handia bilduz.

*Red Pepper*ren analisisan beste atal oso bat betetzen dute Europar ahulaldian dabilzan ultraeskuindarrak. Italiak honetan oso irudi nahasia eskaintzen du, ziurrenik neofaxistak Berlusconiaren eta batik bat Lega Norteren indarretan urtu direlako, hauek haien mezueta asko berenganatuta. Frantzia Le Penek fundatutako Front National ere makal dabil, batzuen ustez antifaxistek eta batik bat ezkertiarrek neurria hartu diotelako.

Belgikan Flandriako eskubi muturrak botoen %23tik 16 egin du gibelka bost urtetan, tartean alderdia xenofobiagatik legez kanpo utzi

zutelarik, ondoren Vlaams Belang fundatzeko. Hemen eskuin muturrak lotura handiak atxikitzen ditu independentismo flamandarrarekin, militante, egitura eta baliabide handiak ere bai, eta horregatik diote bertako antifaxistek oso zaila dela mugimendu hura gelditzea.

Gainerakoan, Europar Batasuna osatzen duten 27 herrialdeetatik erdian ez du eskuin muturrak europarlamentaririk erdietsi. Tartean Espainia aipatzen du *Red Pepper*. En fin, ez da izango Europar parlamentari espainiar ultraeskuindarrak joan ez delako, etiketa bereziarekin ez izanik ere.

Europako Parlamentuan, dena dela, ultra guztiok talde parlamentario bakarra osatzerik ez dute lortu,

horrela galduz dirua eta bestelako aukera asko. Ez baitira errazak ezkontzen bateko populistak eta besteko faxistak. Denak dira oso nazionalistak, gainera, eta batzuen eta besteen nazionalismoak eta xenofobiak talka egiten dute.

Israelek ere bereizten ditu. Populista ultra batzuk musulmanen etsai izatearen poderioz Israelen alde daude itsu-itsuan, eta faxista klasikoak juduen etsai dira fanatismo berdina. Elkar ondo ez ulertzeko beste gai bat etorkinena da. “Etorkin gaiztaginez” ari direnean Mendebaldeko ultrak Ekialdeko etorkinez ere aritzen dira, Ekialdekoen haserretarako.

Bestalde, Eki Europako eskuin muturrekoen arazo nagusietako bat hungariarrak dira. Estatu ugari gutxiengo hungariarrak dauzkate etxe barruan, eta, aldiz, Jobbik Europa osoko hungariarrak batu nahi lituzke.


Krisi ekonomikoek harrotzeko aukerak eman izan dizkie ultraesku-bitarrei historian zehar. XXI. hasierako honetan berdin gerta liteke, herritar askoren etsipenak, politikarien sinesgarritasunik ezak eta alternatibarik ez ikusteak bultzatuta. Aldi berean, sistemako alderdiek ematen diete legitimitatea faxistei joko politikoan gobernatzeko haien beharra dutenean.

“Eskuinmuturraren deiari aurre egin behar zaio —irizten dio *Red Pepper*reko idazleak— alternatiba sinesgarria eraikiz, ahalmena erakutsiz jendearen lanpostuak, etxeak eta zerbitzuak neoliberalen erasoetatik defenditzeko”. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia

